AYUNTAMIENTO DE BARAÑÁIN
BARAÑAINGO UDALA
Navarra - Nafarroa

Udalaren euskara zerbitzua
Servicio municipal de euskera
Lurgorri kalea, 12-14
(Liburutegia, 1./Biblioteca 1º)
31010 BARAÑAIN
Tel.: 948 28 63 09
euskaraz@baranain.com
barañain.eus

# EUSKARA IKASTAROAK EGITEKO, BARAÑAINGO HERRITARREI DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA 2018

Barañaingo Udalak euskara ikasteko laguntzak emango dizkie herrian erroldaturiko bizilagunei, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren 91. neurria betetze aldera (*HELDUEK HIZKUNTZA GUTXITUA IKASTEA: 1. Hizkuntza gutxitua ikasi nahi duten herritarrek dohainik ikasteko aukera*).

Era berean, Barañaingo Udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen Ordenantzaren 22. artikuluak dio: *Barañaingo Udalak diru kopuru bat ezarriko du urteko aurrekontuetan euskarazko ikastaroetan parte hartu nahi duten herritar helduentzat, urtero argitaratuko den deialdiari jarraituz.*

Beraz, Barañaingo Udalak diru-laguntzak emango ditu euskara ikasteko, betiere, ondoko baldintzak betetzen badira:

## 1. Deialdiaren xedea

2018. urtean euskara ikasteko diru-laguntzak ematea. Euskara Arloko 2018. urteko *33 33504 48900 "Subvención aprendizaje euskera"* izeneko diru-sailaren kontura joango dira. Xede honetarako, gehienez ere, 30.000 € erabiliko dira.

## 2. Onuradunak

Honako baldintza hauek betetzen dituztenek eskuratu ahal izango dituzte diru laguntzak:

1) **16 urtetik gorakoa izatea.** 2018. urtean betetzen badira 16 urteak, betetze datatik aurrerako epeari dagokion zatia besterik ez da jasoko.

2) Barañainen **erroldatua** egotea, **gutxienez**, diru-laguntza eskatzen den data kontuan hartuta, **urtebete lehenagotik**, eta ikastaroak irauten duen bitartean.

3) Ikastaroaren eskola orduen **ehuneko 85era** joatea, gutxienez. Eta hura justifikatzeko atxikita duzue, eredu gisa, **I. ERANSKINA**.

4) Ikastorduko 1 € baino gehiago ordaindu izana. Gutxiago ordaintzen duenak baremazio ekonomikoaren arabera dagokiona jasoko du.

# CONVOCATORIA DE AYUDAS ECONÓMICAS A CIUDADANOS/AS DE BARAÑÁIN PARA LA REALIZACIÓN DE CURSOS DE EUSKERA 2018

El Ayuntamiento de Barañáin facilitará a los vecinos y las vecinas empadronados/as en el municipio el aprendizaje de euskera, al objeto de aplicar la medida 91 del Protocolo para la Garantía de los Derechos Lingüísticos (*APRENDIZAJE DE LENGUA MINORIZADA POR PARTE DE PERSONAS ADULTAS: 1. Las personas que deseen aprender la lengua minorizada pueden hacerlo de manera gratuita*).

Así mismo, el artículo 22 de la Ordenanza reguladora del uso y fomento del euskera en el ámbito municipal de Barañáin dice: *El Ayuntamiento de Barañáin consignará en sus Presupuestos anuales una cantidad económica destinada a los vecinos adultos del municipio que deseen participar en cursos de euskera, conforme a la Convocatoria que cada año se publicará a tal efecto.*

Por tanto, el Ayuntamiento de Barañáin concederá ayudas económicas para el aprendizaje de euskera, siempre y cuando se cumplan las siguientes condiciones:

## 1. Objeto de la convocatoria

Concesión de ayudas para el estudio de euskera durante el año 2018. Estas ayudas se abonarán con cargo a la partida presupuestaria *33 33504 48900 "Subvención aprendizaje euskera"* del año 2018 del Área de Euskera. Se destina a este objetivo un máximo de 30.000 €.

## 2. Personas beneficiarias

Podrán ser beneficiarios de estas ayudas las personas que cumplan los siguientes requisitos:

1) **Ser mayor de 16 años.** Si cumple esta edad durante el año 2018, sólo se podrá percibir subvención por el periodo posterior a esa fecha.

2) Estar **empadronada** en el municipio de Barañáin con una **antigüedad mínima** de 1 año a contar desde la fecha de la solicitud de ayuda, y mientras dure el curso por el que se solicita la ayuda.

3) Asistir como mínimo al **85 por ciento** de las horas lectivas del curso. Y para su justificación se adjunta el **ANEXO I**, como modelo.

4) Haber abonado más de 1 € por hora lectiva. A aquella persona que abone menos de esa cantidad se le aplicará el baremo y obtendrá la subvención correspondiente.

Udalaren euskara zerbitzua
Servicio municipal de euskera
Lurgorri kalea, 12-14
(Liburutegia, 1./Biblioteca 1º)
31010 BARAÑAIN
Tel.: 948 28 63 09
euskaraz@baranain.com
barañain.eus

## 3. Bizikidetza-unitatearen definizioa

Diru-laguntza hauek jasotzeko, bizikidetza-unitatetzat joko da odol edo kide ahaidetasunak batutako pertsona taldea, betiere, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ) elkarrekin eta solidarioki ordaintzeko aukera badute. Hartara, diru laguntzak jasotzeko, bizikidetza-unitateko konputa daitezkeen kideak honakoak izango dira:

- legez bereizita ez dauden ezkontideek eta, baleude, seme-alaba adingabeek osatzen dutena, gurasoen baimenarekin, horiekin bizi ez diren seme-alabak izan ezik.
- aurreko paragrafoko baldintzak beteta, aitak edo amak eta seme-alabek osatzen dutena, **pertsona fisiko bera aldi berean bi familia unitatetan ezin daitekeela egon kontuan harturik.**

Lagunak direlako edo besterik gabe elkarrekin bizi direlako, ez dira bizikidetza-unitatetzat hartuko etxebizitza berean elkarrekin bizi direnak, edo antzekoak.

Beste pertsona batekin edo batzuekin bizi den eskatzaileak bizikide horrekin edo horiekin duen lotura mota zein den adieraziko duen zinpeko aitorpena egin beharko du; hau da, senar-emazteen afektibitate harremanaren antzeko harreman iraunkorra (Bikote egonkorraren Ziurtagiria) den edo laguntasun edo bizikidetza arrazoiek bultzatutako bizikidetasuna den zehaztu beharko da.

## 4. Diru baremoa eta bizikidetza-unitatearen errentaren kalkulua

Deialdi honetako 6. puntuan aurreikusitako %50ari dagokion diru-laguntza eskatu ahal izateko, bizikidetza-unitatearen urteko diru-sarrera gordin ponderatuak ezin izango dira izan 2017ko Lanbide arteko gutxieneko soldata (LGS) baino hiru aldiz handiagoak (29.719,20 €).

Sarreren haztapena ondokoaren arabera zehaztuko da:

a) Bizikidetza-unitatearen sarrera gordinaren arabera. Diru-laguntza eskatu aurreko zergaldikoa hartuko da kontuan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokionez. LGS baino zenbat aldiz altuagoa denaren arabera neurtuko dira sarrerak.
b) Bizikidetza-unitatearen kide kopuruaren arabera.
c) Diru-sarrerak dituzten bizikidetza-unitateko kide kopuruaren arabera.

Bizikidetza-unitatearen sarrerak haztatzeko formula honi jarraituko zaio: **HFS = FS x K x S.**

**HFS:** Bizikidetza-unitatearen haztatutako diru-sarreren zenbatekoa, LGS baino zenbat altuagoa

## 3. Definición de la unidad convivencial

Para estas subvenciones se entiende por unidad convivencial la constituida por un grupo de personas ligadas por parentesco de consanguinidad o afinidad, que tengan la posibilidad de tributar conjunta y solidariamente en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas (IRPF). Así, serán miembros computables de la unidad convivencial a efectos de la ayuda:

- la integrada por los cónyuges no separados legalmente y, si los hubiere, los hijos menores, con excepción de los que, con consentimiento de los padres, vivan independientes de éstos.
- La formada por el padre o la madre y los hijos que reúnan los requisitos del párrafo anterior, **sin que ninguna persona física pueda formar parte de dos unidades familiares al mismo tiempo.**

No conforman una unidad convivencial quienes convivan en un mismo domicilio por motivos de amistad o simple convivencia, o análogos.

La persona solicitante que conviva en un mismo domicilio con otra u otras personas deberá emitir una declaración jurada en la que se señale el tipo de vinculación que tenga con dichos convivientes; esto es, si se trata de una relación permanente afectiva análoga a la conyugal (Certificado pareja estable) o si se trata de una convivencia por motivos de amistad o convivencia.

## 4. Baremo económico y cálculo de la renta de la unidad convivencial

Para poder acceder a la ayuda correspondiente al 50% previsto en el punto 6 de estas bases, los ingresos de la unidad convivencial brutos ponderados anuales no excederán de 3 veces el Salario Mínimo Interprofesional (SMI) del año 2017 (29.719,20 €).

La ponderación de ingresos se determinará en función de:

a) Ingresos de la unidad convivencial brutos, en número de veces al SMI del periodo impositivo a efectos de Impuesto sobre la Renta de las personas físicas, inmediatamente anterior al momento en que se solicita la ayuda económica.
b) Número de miembros de la unidad convivencial.
c) Número de miembros de la unidad convivencial que generen los ingresos.

La ponderación de los ingresos convivenciales se efectuará de acuerdo a la siguiente fórmula: **IFP = IF x N x A**

**IFP:** Cuántía de los ingresos de la unidad convivencial

Udalaren euskara zerbitzua
Servicio municipal de euskera
Lurgorri kalea, 12-14
(Liburutegia, 1./Biblioteca 1º)
31010 BARAÑAIN
Tel.: 948 28 63 09
euskaraz@baranain.com
barañain.eus

den.

**FS:** Bizikidetza-unitatearen diru-sarrera gordinen zenbatekoa, LGS baino zenbat altuagoa den.

**K:** Haztapen koefizientea diru-laguntza eskatu duen bizikidetza-unitatearen kide kopuruaren arabera.

Haztapen koefizienteak ondokoak izango dira:
- Kide bakarreko bizikidetza-unitateak: 1,00
- 2 kideko bizikidetza-unitateak: 0,94
- 3 kideko bizikidetza-unitateak: 0,89
- 4 kideko bizikidetza-unitateak: 0,84
- 4 kide baino gehiagoko bizikidetza-unitateei dagokienez, berriz, 0,04 murriztuko da koefizientea, kide bana gehitu ahala.

Bizikidetza-unitatearen kide batek edo gehiagok lanerako ezintasunen bat (%33 baino handiagoa) edo 65 baino gehiago baditu(zte), ordea, hurrengo atale(ta)ko K koefizientea aplikatuko da.

**S:** Haztapen koefizientea, gutxienez, bizikidetza-unitatearen sarrera gordinak sortzen dituen kide kopuruaren arabera.

- Bizikidetza-unitatearen sarrerak kide bakar batek sortzen baditu: 0,77
- Bizikidetza-unitatearen sarrerak 2 kidek sortzen badituzte: 0,75
- Bizikidetza-unitatearen sarrerak 3 kideren artean edo kide gehiagoren artean sortzen badira: 0,73

Diru baremoa, berriz, honako hau izango da:

<u>Bizikidetza-unitatearen sarrera gordinak</u>
<u>Diru-laguntzaren portzentajea LGS baino zenbat aldiz altuago hileko errentaren arabera</u>

| | |
|---|---|
| LGS 2 aldiz **artekoak** diren sarrerak: | % 100 |
| LGS baino 2,0 aldiz **handiagoak** eta 2,2 aldiz **arteko** sarrerak: | % 90 |
| LGS baino 2,2 aldiz **handiagoak** eta 2,4 aldiz **arteko** sarrerak: | % 80 |
| LGS baino 2,4 aldiz **handiagoak** eta 2,6 aldiz **arteko** sarrerak: | % 70 |
| LGS baino 2,6 aldiz **handiagoak** eta 2,8 aldiz **arteko** sarrerak: | % 60 |
| LGS baino 2,8 aldiz **handiagoak** eta 3,0 aldiz **arteko** sarrerak: | % 50 |
| LGS baino 3,0 aldiz **handiagoak** diren sarrerak: | % 0 |

Diru-sarrerek LGS gainditzen ez duten errenta aitorpena aurkezten badu eskatzaileak, bizikidetza-unitatearen kideen errenta aitorpena aurkezteko eskatuko zaio (deialdiaren 3. puntuaren arabera).

Gurasoekin bizi diren 23 urtekoen, eta 23 urtetik gorakoen, kasuan ez dira kontuan hartuko gurasoen diru-sarrerak.

ponderados, en número de veces el SMI.

**IF:** Cuantía de los ingresos de la unidad convivencial brutos, en número de veces el SMI.

**N:** Coeficiente ponderador en función del número de miembros de la unidad convivencial para la que se solicita ayuda económica.

Los coeficientes de ponderación serán los siguientes:
- Unidades convivenciales de 1 miembro: 1,00
- Unidades convivenciales de 2 miembros: 0,94
- Unidades convivenciales de 3 miembros: 0,89
- Unidades convivenciales de 4 miembros: 0,84
- Por cada miembro adicional a partir de 4, el valor de ponderación se reducirá en 0,04.

Cuando uno o más miembros de la unidad convivencial sean personas con minusvalía (superior al 33%) o mayores de 65 años, el coeficiente N aplicable será el tramo o tramos siguientes al que le hubiera correspondido.

**A:** Coeficiente ponderador en función del número de miembros que aporte ingresos convivenciales brutos.

- Unidad convivencial cuyos ingresos se deban a 1 sólo perceptor: 0,77
- Unidad convivencial cuyos ingresos se deban a 2 perceptores: 0,75
- Unidad convivencial cuyos ingresos se deban a 3 ó más perceptores: 0,73

El baremo económico que se aplicará será el siguiente:

<u>Ingresos familiares brutos</u>
<u>Porcentaje de ayuda económica ponderados en nº veces el SMI sobre renta mensual</u>

| | |
|---|---|
| Ingresos **hasta** 2 veces el SMI | 100 % |
| Ingresos **superiores a** 2,0 y **hasta** 2,2 veces el SMI | 90 % |
| Ingresos **superiores a** 2,2 y **hasta** 2,4 veces el SMI | 80 % |
| Ingresos **superiores a** 2,4 y **hasta** 2,6 veces el SMI | 70 % |
| Ingresos **superiores a** 2,6 y **hasta** 2,8 veces el SMI | 60 % |
| Ingresos **superiores a** 2,8 y **hasta** 3,0 veces el SMI | 50 % |
| Ingresos **superiores a** 3,0 veces el SMI | 0 % |

Si la persona solicitante presenta una Declaración de Renta en la que los ingresos no superan el SMI, se le solicitará que presente la Declaración de Renta de los miembros de la unidad convivencial (según punto 3º de la Convocatoria).

En el caso de personas de 23 y más años, que convivan con sus progenitores, no se tendrá en cuenta la Declaración de los padres-madres.

Udalaren euskara zerbitzua
Servicio municipal de euskera
Lurgorri kalea, 12-14
(Liburutegia, 1./Biblioteca 1º)
31010 BARAÑAIN
Tel.: 948 28 63 09
euskaraz@baranain.com
barañain.eus

## 5. Aurkeztu beharreko dokumentuak

1. Diru-laguntza eskatzeko, eskari orri nagusia. Barañaingo Udaletxeko Herritarrak Hartzeko Bulegoan aurkeztu behar da. Bertan ikastaroaren ezaugarriak jasoko dira.
2. Bizikidetza-unitatearen sarreren sinestamenduaren kopia egiaztatua (deialdiaren 3. puntuaren arabera). Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken aitorpenaren edo aitorpenen Foru Ogasunak edo Udalak egiaztatutako kopia edo, aitorpen hori aurkeztu beharrik ez badago eta aitorpen hori ez bada egin, Foru Ogasunak egingo duen ziurtagiria izango dira sinestamendu horiek. Horrelakorik izan ezean, eskatzaileak bizikidetzako sarrera gordinen gaineko zinpeko aitorpena aurkeztu beharko du, eta agiri bidez justifikatuko ditu diru-sarrerak.
3. Matrikula ordaindu dela egiaztatzeko, ordainagiriaren edo/eta banku transferentziaren kopia egiaztatua. Epeka ordaintzen bada eta euskaltegi batean ikasten bada, ordainagiri guztiak ikastaroa amaitu aurretik aurkeztu beharko dira.
4. Eskatzailearen kontu zenbakia (24 digitu).
5. Ofizioz egiaztatuko da Barañaingo Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.
6. Elbarritasun egiaztagiria, elbarria izanez gero.
7. Ikastaroa amaitu eta gero: euskaltegiak eginiko bertaratze egiaztagiria, **I. ERANSKINA** eredu hartuta.

Era berean, ondoko agiriak aurkeztu beharko dira:

a) Eskatzaileak jubilatuak edo pentsionistak badira –lanerako ezintasun edo baliaezintasun egoeran daudenak barne-, euskara ikasteko diru-laguntza eskatu aurre-aurreko hamabi hilabeteetan jasotako diru-laguntza (lanerako ezintasun edo baliaezintasun egoeragatik) edo pentsioa zein izan den erakutsi beharko dute agiri bidez.

b) Eskatzaileak langile beregainak badira, Gizarte Segurantzako urteko kotizazioaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Kuotak kalkulatzeko erabilitako urteko oinarria eta diru sarreren aitorpen pertsonala agertuko ditu ziurtagiriak.

c) Eskatzaileak langabeak badira, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak edo dagokion Enplegu Institutuak/Zerbitzuak egindako ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte. Diru-laguntza eskatu aurre-aurreko hamabi hilabeteetan jasotako langabezia sariak egiaztatuko ditu ziurtagiriak.

Aurrekoari kalterik egin gabe, nahi adina agiri eskatzen ahal ditu udalak, eskatzaileen familiaren benetako diru-sarrerak egiaztatzearren.

## 5. Documentación que se debe presentar

1. Instancia general, en la cual se realiza solicitud de ayuda económica, presentada en la Oficiana de Atención Ciudadana del Ayuntamiento de Barañáin.
2. Fotocopia compulsada de la documentación acreditativa de los ingresos convivenciales (según punto 3º de la Convocatoria). Éstos se acreditarán mediante aportación de fotocopia compulsada por la Hacienda Foral o el Ayuntamiento, de la última declaración o declaraciones del Impuesto sobre la Renta de las personas físicas, o bien, certificado de la Hacienda Foral de no haberse efectuado dicha declaración en el supuesto de que no estuviesen obligados a presentarla. En su defecto, la persona solicitante presentará una Declaración Jurada de los ingresos convivenciales brutos obtenidos, justificándolo documentalmente.
3. Fotocopia compulsada del recibo y/o transferencia bancaria del pago de matrícula. Si se abona a plazos y se estudia en un *euskaltegi*, deberán presentar todos ellos antes del término del curso.
4. Número de cuenta corriente del solicitante (24 dígitos).
5. Hallarse al corriente en el pago de sus obligaciones tributarias con el Ayuntamiento de Barañáin, que se comprobará de oficio.
6. Certificado de minusvalía, si la hubiera.
7. Cuando finalice el curso: Certificado de asistencia del Centro de aprendizaje según modelo que se adjunta en el **ANEXO I**.

Así mismo, deberá presentarse la siguiente documentación, en su caso:

a) Si las personas solicitantes son jubiladas o pensionistas, incluidas las trabajadoras en situación de incapacidad laboral o invalidez, aportarán certificación de la pensión o prestación económica percibida durante los doce meses inmediatamente anteriores a la solicitud.

b) Si las personas solicitantes son trabajadoras por cuenta propia aportarán certificación de la cotización anual a la Seguridad Social en la que conste la base anual sobre la que están calculadas las cuotas y declaración personal de ingresos.

c) Si las personas solicitantes se encontraran en situación de desempleo aportarán certificación expedida por el Servicio Navarro de Empleo ó Instituto/Servicio de Empleo correspondiente, acreditativa de las prestaciones recibidas durante los doce meses inmediatamente anteriores a la solicitud.

Con independencia de cuanto antecede, el Ayuntamiento podrá exigir cuantos medios de prueba estime necesarios para comprobar los ingresos convivenciales reales de cada persona solicitante.

Udalaren euskara zerbitzua
Servicio municipal de euskera
Lurgorri kalea, 12-14
(Liburutegia, 1./Biblioteca 1º)
31010 BARAÑAIN
Tel.: 948 28 63 09
euskaraz@baranain.com
barañain.eus

## 6. Diru-laguntzen emakida

Udalaren euskara zerbitzuak eskaerak aztertuko ditu eta, Udaleko kontu-hartzaileatzak gastua fiskalizatu eta gero, laguntzak ematea proposatuko du, Tokiko Gobernu Batzordeko akordioren bitartez. Tramitatutako eskaeren laburpena aurkeztuko da arloari dagokion informazio-batzordean.

Deialdiko 2. puntuan jasotako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei matrikularen %50a emango zaie.

Oinarri hauen 4. puntuan jasota dauden koefizienteak eta baremoak aplikatuta kalkulatuko da gainerako diru-laguntza.

## 6. Concesión de ayudas

El servicio municipal de euskera estudiará las solicitudes y propondrá, previa fiscalización del gasto por el Área de intervención, la concesión de las ayudas, mediante acuerdo de Junta de Gobierno Local. En Comisión informativa del área se presentará el resumen de las solicitudes.

A todas aquellas personas de Barañáin que cumplan los requisitos recogidos en el punto 2. de la Convocatoria, se les concederá el 50% de la matrícula.

El resto de la subvención se calculará aplicando los coeficientes y baremos recogidos en el punto 4 de estas bases.

## 7. Diru-laguntzaren zenbatekoa eta eskaera aurkezteko epeak

Xede horretarako erabiltzekoa den diru-saila kuantifikatzen da, udal aurrekontuan onartutako urte bakoitzerako zenbatekoa. Onartutako zenbatekoa, 2018. urtean, 30.000 € da, eta diru-laguntzak eskatzeko orriak segidako epean aurkeztu beharko dira:

- **Ikastaro mota guztiak** *(estensiboak, autoikaskuntza tutorizatua, trinkoak, barnetegiak)***:** 2018ko urriaren 1etik 31 arte (biak barne).

  Eta, 2017/2018 ikasturteko 2. epeari dagozkion 2018ko urtarrila-otsailean egindako matrikulak.

- **Lehentasuna izango dute ikastaro estentsiboek** direnak, eta deialdia ikastaro horietarako ebatzi ondoren, geratzen den saldoa banatuko da ikastaro trinko eta barnetegietarako. Eskaerek aurrekontuaren gordailua gaindituko balute, dagokion hainbanaketa egingo litzateke.

- 2019ko deialdian, hala balegokio, 2018ko azaroa eta abenduko ikastaro trinkoetarako eta barnetegietarako eskaerak jasoko dira.

## 7. Cuantía de la ayuda económica y plazos de solicitud

Se cuantifica la partida destinada a este fin, hasta el importe aprobado para cada año en el presupuesto municipal. En 2018, el importe de la cuantía aprobada asciende a 30.000,00 €, y se establecen los siguientes plazos para la presentación de solicitudes de ayudas:

- **Todos los cursos** (*extensivos, autoaprendizaje tutorizado, intensivos y barnetegis -internados*): desde el 1 al 31 de octubre de 2018 (ambos inclusive).

  Y matrículas efectuadas en enero-febrero de 2018 correspondientes al 2º periodo del curso académico 2017/2018.

- **Tendrán prioridad los cursos extensivos**, de forma que tras resolver la convocatoria para dichos cursos, se distribuirá el saldo restante para los cursos intensivos y barnetegis (internados). En el supuesto de que las solicitudes superen la consignación presupuestaria, se establecerá el prorrateo correspondiente.

- Las solicitudes para los cursos intensivos y barnetegis (internados) de noviembre y diciembre de 2018 se tramitarán con la convocatoria, en su caso, del año 2019.

## 8. Eskaerak aztertzea eta erabakitzea

a) Diru-laguntza hauek emateko proposamena Tokiko Gobernu Batzarrari egingo zaio, Udal Euskara Zerbitzuaren bidez, aurretik Kultura, Hezkuntza eta Euskara Batzorde informatzailearen eta kontu-hartzailearen fiskalizazioaren irizpena jaso ondoren.

b) 2018. urte osoan, Udalak ikasle bati emandako diru laguntza ez da inoiz 600 € baino handiagoa izango.

## 8. Estudio y resolución de las solicitudes

a) La propuesta de concesión de estas subvenciones se formulará a la Junta de Gobierno Local, a través del Servicio municipal de euskera, previo dictamen ante la Comisión informativa de Cultura, Educación y Euskera, y fiscalización del Sr. Interventor.

b) Nunca la ayuda concedida por el Ayuntamiento a un/a alumno/a durante todo el año 2018 será superior a 600 €.

Udalaren euskara zerbitzua
Servicio municipal de euskera
Lurgorri kalea, 12-14
(Liburutegia, 1./Biblioteca 1º)
31010 BARAÑAIN
Tel.: 948 28 63 09
euskaraz@baranain.com
barañain.eus

c) Ezin izanen da diru-laguntza hau jaso baldin eta beste erakunde batzuetan eskatu bada eta matrikularen zenbatekoa gainditzen badu.

## 9. Diru-laguntza ordaintzea: gutxieneko asistentzia eta hori egiaztatzeko epeak

Laguntza kobratu ahal izateko, ikastaroa egin izana egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da: data, eskola orduak eta eskatzailearen maila; gutxieneko asistentzia %85ekoa izango da. (Asistentzia ziurtagiria). Ikastaroa amaitu ondoren, honako epe hauetan aurkeztu beharko da ziurtagiria:

- Ikastaroak estentsiboak eta autoikaskuntza tutorizatuak direnean, dagokion ikasturteko ekainaren azken laneguna arte, ikastaroa data horren ondoren amaitzen den kasuetan izan ezik. Kasu horietan, ikastaroa amaitu eta lehen bost lanegunetan aurkeztu beharko da.
- Ikastaro trinkoak eta barnetegiak direnean, diru-laguntza eskaerarekin batera aurkeztu beharko dira.

## 10. Datuak egiazkoak ez badira

Eskaera orrian edo, bizikidetza dela eta, horri atxikirik doan aitorpenean agertzen diren datuak faltsuak badira edo daturen bat falta bada, edo ekarri den dokumenturen bat faltsua bada, eskaera orri hori baliogabetzat joko da. Gainera, eskatzaileak egin dutenaren erantzule izango dira.

## 11. Interesdunei jakinaraztea eta errekurtsoak

Interesdunei jakinaraziko zaizkie haien eskubideak eta interesak ukitzen dituzten ebazpenak eta administrazio-egintzak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. eta ondorengo artikuluek ezarritakoari jarraiki.

Oinarri hauen aurka, baita horiek betearazteko hartzen diren administrazio-ebazpenen aurka ere, errekurtso hauetako edozein aurkezten ahalko da, aukeran:

- Berraztertzeko errekurtsoa, administrazio-egintzaren egile den organoari berari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik hasita.
- Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik hasita.

c) No se podrá recibir esta subvención si se ha solicitado en concepto de la misma en otras instituciones y supera el importe de la matrícula.

## 9. Abono de la ayuda económica: asistencia mínima y plazos para acreditarla

Para hacer efectivo el cobro de cualquiera de las anteriores ayudas, deberá presentarse el documento acreditativo de haber realizado el curso: fecha, horas lectivas y nivel de la persona solicitante con una asistencia mínima del 85% (Certificado de Asistencia). La acreditación habrá de realizarse tras finalización del curso en los siguientes plazos:

- Para cursos extensivos y autoaprendizaje tutorizado, como máximo hasta el último día hábil del mes de junio del curso académico correspondiente salvo para el caso en que el extensivo finalice con posterioridad a dicha fecha. En ese último supuesto, se presentará en el plazo de cinco días hábiles desde la finalización del curso.
- Para intensivos e internados (barnetegis), se tendrán que presentar junto con la solicitud de subvención.

## 10. Sobre la falta de veracidad de los datos

La omisión o falsedad de los datos que se hagan constar en la solicitud o en la declaración adjunta sobre convivencia, o la falsedad de los documentos aportados, dará lugar a la declaración de nulidad de aquella, además de las responsabilidades en que hayan podido incurrir sus autores.

## 11. Notificación a las personas interesadas y recursos

La notificación a las personas interesadas de las resoluciones y actos administrativos que afecten a sus derechos e intereses, se efectuará de conformidad con lo establecido en los artículos 40 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Contra estas bases y las resoluciones administrativas que se adopten en ejecución de las mismas podrán interponerse, potestativamente, los siguientes recursos:

- Recurso de Reposición ante el órgano municipal autor del acto administrativo en el plazo de un mes a partir del día siguiente a la notificación o, en su caso, publicación del acto que se recurra.
- Recurso de Alzada ante el Tribunal Administrativo de Navarra en el plazo del mes siguiente a la notificación o publicación del acto que se recurra.
- Recurso Contencioso Administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia de Navarra en el plazo

Udalaren euskara zerbitzua
Servicio municipal de euskera
Lurgorri kalea, 12-14
(Liburutegia, 1./Biblioteca 1º)
31010 BARAÑAIN
Tel.: 948 28 63 09
euskaraz@baranain.com
barañain.eus

- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Epaitegi Nagusiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunean hasiko da epe hori.

de dos meses. Este plazo se computará a partir del día siguiente a la notificación o publicación del acto que se recurra.

## 12. Datu pertsonalen tratamendua

Diru-laguntza hauek eskatzen dituztenek baimena ematen diote Barañaingo Udalari deialdian finkatu diren xedeak bete daitezen beharrezkoak diren datu pertsonalak eska ditzan.

## 12. Tratamiento de datos personales

Los solicitantes de estas ayudas autorizan al Ayuntamiento de Barañáin a recabar los datos personales necesarios para que se cumplan los objetivos establecidos en la convocatoria.

Datu Pertsonalak babesteko apirilaren 27ko 2016/679 EB DBEOri jarraiki, jakinarazten dizugu Barañaingo Udalak, deialdi honetan parte hartzeko biltzen dituen datu pertsonalen tratamenduaren arduradun moduan, soilik hauekin erlazionatutako izapideetarako erabiliko dituela, bitartekariei lagatzea aurreikusirik ez dagoelarik, betebehar legala salbu. Halaber, Barañaingo Udaletxeko Erregistro Orokorrera (Udaletxe plaza zk.g.) zuzenduz gauzatu dezakezun irispiderako, zuzenketarako, ezerezteko eta aurkaritzako eskubidea jakinarazten dizugu. Informazio gehigarria: udalaren Webguneko atala http://www.baranain.es/eu/proteccion-de-datos/

A tenor del RGPD UE 2016/679, de 27 de abril, le informamos que el Ayuntamiento de Barañáin como responsable del tratamiento de los datos de carácter personal que se recaban para acceder a esta convocatoria, efectuará el tratamiento de los mismos únicamente para los diferentes trámites relacionados con la misma, no estando prevista la cesión de datos a terceros, salvo obligación legal. Así mismo, le informamos de su derecho de acceso, rectificación, cancelación y oposición, que podrá ejercitar dirigiéndose al Registro General del Ayuntamiento de Barañáin (Pza. Consistorial s/n). Información adicional: apartado de la web municipal http://www.baranain.es/proteccion-de-datos/

Barañain, 2018ko uztailaren 12a./ Barañáin, 12 de julio de 2018.

AYUNTAMIENTO DE BARAÑÁIN
BARAÑAINGO UDALA
Navarra - Nafarroa

Udalaren euskara zerbitzua
Servicio municipal de euskera
Lurgorri kalea, 12-14
(Liburutegia, 1./Biblioteca 1º)
31010 BARAÑAIN
Tel.: 948 28 63 09
euskaraz@baranain.com
barañain.eus

# I. ERANSKINA – ANEXO I

## ASISTENTZIA ZIURTAGIRIA – CERTIFICADO DE ASISTENCIA

IKASLEAREN DATUAK – DATOS DE LA ALUMNA O ALUMNO

| **IKASLEAREN IZEN-ABIZENAK - NOMBRE Y APELLIDOS DEL ALUMNO/A** | **NAN - DNI** |
|---|---|
| | |

IKASTEGIAREN DATUAK – DATOS DEL CENTRO DE APRENDIZAJE

| **IKASTEGIAREN IZENA - NOMBRE DEL CENTRO** | **IFZ – NIF** |
|---|---|
| **IKASTEGIAREN HELBIDEA – DIRECCIÓN DEL CENTRO** | |
| **ZIURTAGIRIAREN SINATZAILEA – FIRMANTE DEL CERTIFICADO** | **KARGUA – CARGO** |

IKASTAROAREN DATUAK – DATOS DEL CURSO

| **MAILA - NIVEL** | **ESKOLA-ORDUAK (KOPURUA) – HORAS LECTIVAS (NÚMERO)** |
|---|---|
| **ORDAINDUTAKOA – CANTIDAD ABONADA (€)** | **BERTARATZEA – ASISTENCIA (%)** |

**IKASTARO MOTA – MODALIDAD CURSO**

- ☐ Ikastaro estentsiboa – Curso extensivo
- ☐ Ikastaro trinkoa – Curso intensivo
- ☐ Barnetegia - Internado
- ☐ Online ikastaroa – Curso on-line

| **HASIERA DATA – FECHA DE INICIO** | **BUKAERA DATA – FECHA DE FINALIZACIÓN** |
|---|---|
| | |

| **OHARRAK – OBSERVACIONES** |
|---|
| |

Goian aipatutako pertsonak ikastaroa egin du adierazitako ezaugarri eta baldintzekin, eta horrela ziurtatzen dut agiri honetan, behar diren ondorioak izan ditzan.

Barañain, 20__ko ____________ren _____ (a).

La persona arriba citada ha realizado el curso cuyas características y condiciones se indican, y así lo certifico en este documento, para que obre los efectos oportunos.

Barañáin, _____ de ________________ de 20__.

| Arduradunaren sinadura – Firma de la persona responsable | Ikastegiaren zigilua – Sello del Centro |
|---|---|
| | |